**Herri Ametsa Ikastola**
Guardaplata 28, 20016 Donostia
Tfn-943 39 35 20 / 39 24 21
Fax-943 40 40 90
herriam@ikastola.eus
www.herriametsa.com

Donostian, 2021ko irailaren 29a

Familia agurgarriak,

Herri Ametsa ikastolako Tour Birtuala aurkeztu nahi dizuegu. Nahi duzuen tokitik eta nahi duzuen momentuan gure ikastola bisitatzeko aukera, alegia. Osatzen dugun familia handia egonkortzearen aldeko apustua da eta, era berean, Herri Ametsa mundura zabaltzekoa.

360ºko argazkien bidez, bertatik bertara sentituko ditu bisitariak naturak inguratutako ikastolako instalazioak; HH, LH eta DBHko ikasgelak bakoitzaren ikasketa planaren ardatz nagusiekin batera ezagutuko ditu, baita autobus, zaintza eta garraio zerbitzuak ere. Horrez gain, Herri Ametsa ikastolako ikasleen irteera profila eta ikastola beraren inguruko informazioa ere jasota daude Tour Birtualean.

Educa Reality enpresarekin lankidetzan burutu dugu proiektua eta bihartik aurrera ikastolako webgunean izango duzue eskuragarri.

Herri Ametsan garrantzi handia ematen diogu komunikazioari eta harekin lotutako gertutasun eta gardentasunari. Gauzak horrela, Tour Birtuala bisita dezazuen gonbidatzen zaituztegu eta edozein zalantza edo iritzi konpartitu nahiko bazenute, idatzi *gurasoentxokoa@herriametsa.com* helbidera, gustura irakurriko ditugu eta.

Agur bero bat,

**Herri Ametsa Ikastola**

*Ikastola txikia- familia handia*

*Estimadas familias,*

*Os presentamos un novedoso proyecto de la ikastola en el que hemos apostado por estabilizar la gran familia que formamos y a la vez abrir Herri Ametsa al mundo. Se trata de un Tour Virtual que posibilitará visitar nuestra ikastola desde dónde y cuándo queráis.*

*Gracias a imágenes de 360º, la persona visitante sentirá muy cerca nuestras instalaciones rodeadas por la naturaleza; conocerá las aulas de HH, LH y DBH junto con los ejes principales de cada etapa, así como los servicios de autobús y comedor.*

*El proyecto se ha llevado a cabo con la empresa Educa Reality y estará disponible en la página web de la ikastola a partir de mañana.*

*En Herri Ametsa damos mucha importancia a la comunicación al igual que a la cercanía y la transparencia. Así las cosas, os invitamos a visitar el Tour Virtual, y en el caso de tener alguna duda o sugerencia escribir a gurasoentxokoa@herriametsa.com os atenderemos con gusto.*

*Un cordial saludo,*

**Herri Ametsa Ikastola**

*Ikastola txikia- familia handia*